**ALONSOTEGIKO UDALAREN ETA URAREN EUSKAL AGENTZIAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, "ALONSOTEGIKO ETA AZORDOIAGA ERREKAREN GALERIAKO PATIOAN PATOLOGIAK KONPONTZEKO EXEKUZIO-PROIEKTUAN" JASOTAKO OBRAK GAUZATU ETA FINANTZATZEKO**

**CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE ALONSOTEGI Y LA AGENCIA VASCA DEL AGUA, URA, PARA LA EJECUCIÓN Y FINANCIACIÓN DE LAS OBRAS INCLUIDAS EN EL "PROYECTO DE EJECUCIÓN PARA LA REPARACIÓN DE PATOLOGÍAS EN EL PATIO DEL C.P. ALONSOTEGI Y LA GALERÍA DEL ARROYO AZORDOIAGA"**

**BILDU DIRA:**

UNAI ARREGI GARDOKI jauna, Alonsotegiko alkate-udalburua, osoko bilkurak 2023ko ekainaren 17an hartutako erabakiaren arabera jardunez

ANTONIO AIZ SALAZAR jauna, Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusia

**REUNIDOS**

D. UNAI ARREGI GARDOKI, Alcalde -Presidente del Ayuntamiento de Alonsotegi, actuando en virtud del Acuerdo del Pleno de fecha 17 de junio de 2023

D. ANTONIO AIZ SALAZAR, Director General de la Agencia Vasca del Agua

**ESKU HARTU DUTE:**

Lehenengoak, Alonsotegiko Udaleko alkate gisa, Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 21.1. artikuluak legezko ordezkari gisa eman dion eskuduntzari jarraikiz.

Bigarrenak, Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusi gisa, Agentziaren Estatutuen 7.2.g) artikuluak ematen dion eskuduntzari jarraikiz.

**INTERVIENEN**

El primero, en su calidad de Alcalde del Ayuntamiento de Alonsotegi, representante legal en virtud de la atribución que le confiere el artículo 21.1 de la Ley 7/85, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local.

El segundo, en su calidad de Director General de la Agencia Vasca del Agua, y en virtud de la atribución que le confiere el artículo 7.2.g) de sus Estatutos.

Bi aldeek LANKIDETZA-HITZARMEN hau sinatzeko lege-gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta horretarako, hau

**ADIERAZTEN DUTE:**

**LEHENENGOA.-** Alonsotegiko Udala (aurrerantzean, Udala), Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren hamabosgarren xedapen gehigarriaren 2. apartatuaren arabera, dagokion udalerriari dagokio haur-hezkuntzako, lehen hezkuntzako edo hezkuntza bereziko ikastetxe publikoetarako eraikinak kontserbatzea, mantentzea eta zaintzea.

**BIGARRENA.-** Uraren Euskal Agentziaren (aurrerantzean, URA) printzipio orokorrak dira, besteak beste, administrazioen arteko koordinazioa eta lankidetza uraren politika aplikatzeko, bai eta uholdeen aurkako prebentzio-politika ere.

**HIRUGARRENA.-** Haren eginkizunen artean daude, Euskadiko Uraren ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 7. artikuluaren arabera, eskualdatutako eskumenak eta jabari publiko hidraulikoaren babesa eta kontserbazioa bermatzea. Ildo horretan, URAren eskumenekoak dira EAEn egiten diren obra hidraulikoak, jarduketa horiek haren interesekoak direnean, bai eta obra hidrauliko horiek egiteko xedez toki-korporazioei laguntza ekonomikoak ematea ere, kasu honetan bezala.

Ambos intervinientes se reconocen capacidad legal suficiente para celebrar el presente CONVENIO DE COLABORACIÓN, y a tal efecto,

**EXPONEN**

**PRIMERO. -** Que el Ayuntamiento de Alonsotegi, en adelante Ayuntamiento, de acuerdo con el apartado 2 de la Disposición adicional decimoquinta de la Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación, la conservación, el mantenimiento y la vigilancia de los edificios destinados a centros públicos de educación infantil, de educación primaria o de educación especial, corresponderán al municipio respectivo.

**SEGUNDO. -** Que la Agencia Vasca del agua, en adelante URA, tiene como principios generales, entre otros, la coordinación y cooperación interadministrativa en aplicación de la política del agua, así como la política preventiva frente a inundaciones.

**TERCERO. -** Entre sus funciones, conforme al artículo 7, de la Ley 1/2006, de 23 de junio, de aguas de Euskadi, están las competencias transferidas y garantizar la protección y conservación del dominio público hidráulico. En este sentido, competen a URA, las obras hidráulicas que se realicen en el territorio de la C.A.E., cuando tales actuaciones sean de su interés y el otorgamiento de auxilios económicos a Corporaciones Locales para la ejecución de dichas obras hidráulicas, tal y como es el caso

**LAUGARRENA.-** Alonsotegiko ikastetxe publikoan, hondoratze/kolapso batzuk ikusi ziren patioko eta kirol-pistetako zoruan, eta, aurreko txosten teknikoen eta geoteknikoen arabera, patologien eragilea Azordoiaga errekaren galeria egoera txarrean egoteak dakartzan iragazketak dira. Galeria hori ikastetxearen eraikinaren ondoko lurpeko kanalizazio batetik igarotzen da.

**CUARTO. -** Que en el Colegio Público de Alonsotegi se detectaron unos hundimientos/colapsos en el firme del patio y pistas deportivas que según los informes técnicos y geotécnico previos, la causante de las patologías son las filtraciones por el mal estado de la galería del Arroyo Azordoiaga, que transcurre por una canalización subterránea adyacente al edificio del colegio.

**BOSGARRENA.-** Udalak ezinbestekotzat jotzen du Azordoiaga errekaren galeriako lauzaren birgaikuntza funtzionalari heltzea, ikastetxeko patioan agertutako arazoak konpontzeko, arazo horien jatorria konpontzeko eta azpiegitura horren balio-bizitza luzatzeko, azpiegitura horren uholde-arriskua handitu gabe, haren funtzioa-bermatzeko.

**QUINTO. -** Que el Ayuntamiento, considera imprescindible afrontar la Rehabilitación funcional de la losa de la galería del Arroyo Azordoiaga, para solucionar los problemas aparecidos en el patio del colegio, reparar el origen de estos problemas e incrementar la vida útil de dicha infraestructura, sin que ello incremente la inundabilidad-de la misma para garantizar su función.

Horretarako, Alonsotegiko ikastetxe publikoko patioan eta Azordoiaga errekaren galerian patologiak konpontzeko exekuzio-proiektua idazteko eskatu du.

Que a tal fin ha encargado la redacción del Proyecto de ejecución para la reparación de patologías en el patio del Colegio Público de Alonsotegi y la galería del arroyo Azordoiaga

URA bat dator esku hartzeko premia horrekin, kontuan hartuta Azordoiagako erreka hori UAHE baten barruan dagoela, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Uholde Arriskua Kudeatzeko Planean hala kalifikatuta. Plan horren neurrien proposamena gaur egun indarrean dagoen Plan Hidrologikoan ere jasotzen da.

URA comparte esta necesidad de intervención, considerando que este arroyo de Azordoiaga está dentro de una zona ARPSI, calificada así en el Plan de Gestión de Riesgo de Inundación de la demarcación hidrográfica del Cantábrico Oriental, cuya propuesta de medidas se recoge también por el Plan Hidrológico, actualmente en vigor.

**SEIGARRENA.-** Obra horiek egiteak dakarren gastu ekonomikoari aurre egiteko eta behar den laguntza teknikoa jasotzeko, Udalak Uraren Euskal Agentziaren laguntza eskatu du.

**SEXTO.** - Que para hacer frente al desembolso económico que supone la realización de estas obras, así como para recibir el apoyo técnico necesario, el Ayuntamiento ha solicitado el auxilio de la Agencia Vasca del Agua.

**ZAZPIGARRENA.-** Bi erakundeek interes handia dute Alonsotegiko ikastetxe publikoko patioan eta Azordoiaga errekaren galerian

**SEPTIMO. -** Que ambas Entidades tienen el máximo interés en que se lleven a cabo las obras definidas en el referido Proyecto de

patologiak konpontzeko exekuzio-proiektuan zehaztutako obrak egiteko, udalaren lurpeko hoditeriaren egungo egoera nabarmen egokitu eta hobetu dadin.

**ZORTZIGARRENA.-** Administrazio publikoen arteko harremanetan bete behar den lankidetza-printzipioa kontuan hartuta, Sektore Publikoaren Araubide juridikoaren 40/2015 Legearen 141.1.d artikuluan ezarritakoaren arabera.

Hori guztia dela eta, lankidetza-hitzarmen hau sinatu dute, ondoko hauek kontuan hartuta:

**KLAUSULAK**

**LEHENENGOA. - HITZARMENAREN XEDEA.**

Alonsotegiko Udalak eta URAk sinatutako hitzarmen honen xedea da bi erakundeen parte-hartzea arautzea Alonsotegiko ikastetxe publikoko patioan eta Azordoiaga errekaren galerian patologiak konpontzeko exekuzio-proiektuan zehazten diren obren bideragarritasunean eta egikaritzean.

Obra horretan badira premiazko arrazoiak, lanak berehala egitea gomendatzen dutenak.

**BIGARRENA. - PROIEKTU TEKNIKOA.**

Hitzarmenak jasotzen dituen obrak "Alonsotegiko ikastetxe publikoko patioan eta Azordoiaga errekaren galerian patologiak konpontzeko exekuzio-proiektua" izeneko proiektuari dagozkio. Obra horiek, gutxi

ejecución para la reparación de patologías en el patio del Colegio Público de Alonsotegi y la galería del arroyo Azordoiaga, a fin de adecuar y mejorar considerablemente la situación actual de la conducción subterránea municipal.

**OCTAVO. -** Que teniendo en cuenta el principio de cooperación que debe observarse en las relaciones entre Administraciones Publicas, a tenor de lo establecido en el Artículo 141.1.d de la Ley 40/2015 de Régimen Jurídico del Sector Público.

Por todo lo anterior proceden a formalizar el presente Convenio de Colaboración, con arreglo a las siguientes:

**CLÁUSULAS**

**PRIMERA. - OBJETO DEL CONVENIO**

El presente Convenio, suscrito entre el Ayuntamiento de Alonsotegi y URA, tiene por objeto regular la participación de ambas entidades en la viabilidad y ejecución de las obras definidas en el Proyecto de ejecución para la reparación de patologías en el patio del Colegio Público de Alonsotegi y la galería del arroyo Azordoiaga.

En dichas obras concurren motivos de urgencia que recomiendan su ejecución inmediata.

**SEGUNDA. - PROYECTO TÉCNICO**

Las obras a las que se refiere el Convenio son las correspondientes al denominado “Proyecto de ejecución para la reparación de patologías en el patio del Colegio Público de Alonsotegi y la galería del arroyo Azordoiaga”,

gorabehera, berrehun eta berrogeita bi mila hirurehun eta berrogeita hamazortzi euro eta berrogeita zazpi zentimoko (242.358,47 €) aurrekontua dute, BEZa barne, eta egikaritzeko hilabeteko epea.

que alcanzan un Presupuesto aproximado de Ejecución por Contrata, IVA incluido, de doscientos cuarenta y dos mil trescientos cincuenta y ocho euros con cuarenta y siete céntimos (242.358,47 €) y un plazo de ejecución de un mes.

Obrak zehazten dituen proiektu teknikoa Proyter Ingeniería y Medio Ambiente, SL enpresak idatzi du, zehazki Juan Carlos Ruiz Alarcón bide, ubide eta portuetako ingeniariak, eta URAk jaso eta onartu du.

El Proyecto técnico que define las obras ha sido redactado por Proyter Ingeniería y Medio Ambiente, S.L., en particular por el ingeniero de caminos CC. Y PP. Juan Carlos Ruiz Alarcón y es conocido y aceptado por URA.

**HIRUGARRENA. - LURZORUAREN KUDEAKETA ETA BAIMENAK**

Jarduketa kokatzen den lurzorua Udalarena da, eta Udalak erabateko erabilgarritasuna du horren gainean; izan ere, ikastetxea, instalazioak eta patioa udalaren jabetza diren jabari publikoko ondasunak baitira.

Ondoko azalera, ibilgailuen aparkalekutzat erabiltzen dena, Bizkaiko Foru Aldundiarena da, eta Udalak konpromisoa hartzen du behar diren baimenak lortzeko, hala badagokio.

Udalak, hitzarmen hau sinatuz, konpromisoa hartzen du obra egiteko behar diren eskabide, baimen, eskaera eta izapide guztiak egiteko, kasuan kasuko erakundeen aurrean.

**TERCERA. - GESTIÓN DE SUELO Y AUTORIZACIONES**

El suelo donde se localiza la actuación es propiedad municipal y el Ayuntamiento ostenta plena disponibilidad sobre el mismo, ya que tanto el centro escolar como sus instalaciones y patio son bienes de dominio público propiedad municipal.

La superficie adyacente, destinada a parking de vehículos es propiedad de la Diputación foral de Bizkaia, comprometiéndose el Ayuntamiento a obtener las autorizaciones necesarias, en su caso.

El Ayuntamiento, mediante la suscripción del presente Convenio, se compromete a realizar cuantas peticiones, autorizaciones, solicitudes y tramitaciones sean necesarias ante los organismos correspondientes para la ejecución de la obra.

**LAUGARRENA. - OBRAK KONTRATATZEA ETA BAIMENTZEA**

Obrak Udalak kontratatuko ditu. Ondorioz, haren betebeharra izango da kontratazio-prozedura osorik izapidetzea, dituen ahalmenen eta araubidearen arabera.

**CUARTA. - CONTRATACIÓN Y AUTORIZACIÓN DE LAS OBRAS**

Las obras serán contratadas por el Ayuntamiento. En consecuencia, será obligación de éste la tramitación completa del procedimiento de contratación, de acuerdo

con las facultades y el régimen que le son propios.

**BOSGARRENA. - OBREN ZUZENDARITZA**

Behin obrak kontratatuta eta behar diren baimen guztiak izanda, udal-teknikariek edo kanpoko enpresa batek zuzenduko dituzte obrak, udalak aukeratzen duenaren arabera.

**QUINTA. - DIRECCIÓN DE LAS OBRAS**

Las obras, una vez contratadas y disponiendo de todas las autorizaciones precisas serán dirigidas por técnicos municipales o por empresa externa, a elección del ayuntamiento.

**SEIGARRENA. - OBRAK ETA LURZORUAREN KUDEAKETA FINANTZATZEA**

Obrak finantzatzea, proiektuak idaztea, azterlanak egitea eta Obra Zuzendaritzari laguntza teknikoa ematea Udalari dagokio. Nolanahi ere, URAk konpromisoa hartzen du obren benetako kostuaren % 40 ordaintzeko eta Udalari aholkularitza teknikoa emateko, obra hidraulikoak behar bezala egin daitezen.

Aurrekoa ikusita, hitzarmenean parte hartzen duten alderdietako bakoitzak bere gain hartzen dituzten betebehar ekonomikoei aurre egiteko behar adina aurrekontu-kontsignazio egin beharko ditu.

Udalak adierazi du, halaber, obrak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren 145.409,90 euroko finantzaketa duela.

**SEXTA. - FINANCIACIÓN DE LAS OBRAS Y DE LA GESTIÓN DEL SUELO**

La financiación de las obras, así como la redacción de los proyectos, estudios y la asistencia técnica a la Dirección de Obras corresponde al Ayuntamiento. No obstante, URA, se compromete a sufragar el 40% del coste efectivo de las obras y a asesorar técnicamente al Ayuntamiento para la correcta ejecución de las obras hidráulicas.

A la vista de lo anterior cada una de las partes que intervienen en el Convenio se obligan a efectuar las consignaciones presupuestarias suficientes para hacer frente a las obligaciones económicas que contraen.

El ayuntamiento hace constar que la obra cuenta asimismo con financiación del Departamento de Educación del Gobierno Vasco, por importe de 145.409,90 euros.

**ZAZPIGARRENA. - OBRAREN TITULARTASUNA.**

Udalak du jarduketaren xede diren elementuen eta egindako inbertsioaren titulartasuna, eta, ondorioz, hari dagokio mantentze- eta berrezarpen-betebeharra; ondorioz, URAk ez du inolako erantzukizunik izango, ezta obrako lanen ondoriozko erantzukizunik ere.

**SEPTIMA. - TITULARIDAD DE LA OBRA**

El Ayuntamiento posee la titularidad de los elementos sobre los que se actúa y sobre la inversión realizada, y, en consecuencia, la obligación de mantenimiento y reposición, quedando URA expresamente liberada de toda responsabilidad, incluida la derivada de la ejecución de la obra.

**ZORTZIGARRENA. - JARRAIPEN BATZORDEA.**

Hitzarmen honetan xedatutakoari jarraipena egiteko, jarraipen-batzorde bat osatuko da, lau kidez osatua: bi udalekoak eta bi URAkoak.

Hitzarmena indarrean dagoen bitartean alderdien artean sortzen diren arazo tekniko, ekonomiko eta lankidetzakoak argitzea izango da batzordearen zeregina.

**OCTAVA. - COMISION DE SEGUIMIENTO**

Para el seguimiento de lo estipulado en el presente Convenio se creará una Comisión de Seguimiento que estará integrada por cuatro personas, dos por parte del Ayuntamiento y dos por parte de URA.

El cometido de la Comisión será el de dilucidar cuantas cuestiones técnicas, económicas y de colaboración entre las partes se susciten durante la vigencia del Convenio.

**BEDERATZIGARRENA. - HITZARMENAREN ONDORIOAK ETA IRAUPENA.**

Hitzarmen honek ez dakar esku hartzen duten alderdiek beren eskumenei uko egitea ezta horiek aldatzea ere, eta hitzarmenaren indarrez hartzen dituzten konpromisoei lotutako erantzukizunak bakarrik hartzen dituzte beren gain.

Hitzarmena sinatzen denetik hasiko da eragina izaten, une horretatik behartuko ditu parte-hartzaileak, eta gehienez urtebete iraungo du; sei hilabetez luzatzeko aukera egongo da, aplikatu beharreko legeriaren arabera.

**NOVENA. - EFECTOS Y DURACION DEL CONVENIO**

El presente convenio no supondrá renuncia ni alteración de las competencias de las partes intervinientes, que asumen únicamente las responsabilidades inherentes a los compromisos que contraen en virtud del mismo.

El Convenio surtirá efecto y obligará a las partes intervinientes desde su firma con una duración máxima de 1 año, prorrogable por seis meses, de conformidad con la legislación aplicable

**HAMARGARRENA. - HITZARMENA AZKENTZEA**

Aurreko klausulan aipatutako iraunaldia igaro delako, sinatzaileek aho batez erabaki dutelako edo alderdiek suntsiarazi dutelako azkenduko da hitzarmena.

Alderdietako batek ez baditu betetzen bere gain hartutako konpromisoak, besteak eskubidea izango du hitzez hitz bete ditzala eskatzeko edo hitzarmena suntsiarazteko eskatzeko.

**DECIMA. - EXTINCION DEL CONVENIO**

El Convenio se extinguirá o bien por el transcurso del plazo de vigencia referida en la cláusula anterior, por el acuerdo unánime de los firmantes o por resolución.

El incumplimiento por alguna de las partes de los compromisos asumidos facultará a la otra a exigir su estricto cumplimiento o a solicitar su resolución.

Eta ados daudela adierazteko, bertaratutako biek hitzarmenaren bi ale sinatu dituzte, goiburuan adierazten diren tokian eta egunean.

Y en prueba de conformidad, lo firman los dos comparecientes, por duplicado ejemplar, en el lugar y fecha expresados en el encabezamiento.

**EL DIRECTOR GENERAL DE LA AGENCIA VASCA DEL AGUA/ URAREN EUSKAL AGENTZIAREN ZUZENDARI NAGUSIA**

ANTONIO AIZ SALAZAR - 72715102G

Firmado digitalmente por ANTONIO AIZ SALAZAR - 72715102G
Fecha: 2023.07.27 14:45:50 +02'00'

**ANTONIO AIZ SALAZAR**

**EL ALCALDE–PRESIDENTE DEL AYUNTAMIENTO DE ALONSONTEGI / ALONSOTEGIKO ALKATE-UDALBURUA**

Fecha: 2023.08.01 14:44:06 +02'00'
Versión de Adobe Acrobat Reader: 2023.003.20244

**UNAI ARREGI GARDOKI**